BERMEOKO UDALA



**ZIURTAGIRIA**

**Tokiko Gobernu Batzarraren erabagia**

Jurdana Uriarte Lejarragak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2020-11-10(e)(a)n, TOKIKO GOBERNU BATZARRAk erabagi hau hartu dauela:

**7-BERMEOKO UDALAK ETA UDALAREN KIROL PATRONATUAK URTEAN ZEHAR ANTOLATZEN DITUZTEN EKITALDI EZBERDINETARAKO, SOINU ETA ARGIZTAPEN EKIPOEN ALOKAIRUA ETA LAGUNTZA TEKNIKOAREN ZERBITZUA EMOTEKO KONTRATAZIO PROZEDURA HUTSIK DEKLARATZEA.**

### Xedea

Bermeoko Udalak eta Udalaren Kirol Patronatuak urtean zehar antolatzen dituzten ekitaldi ezberdinetarako, soinu eta argiztapen ekipoen alokairua eta laguntza teknikoaren zerbitzua emoteko kontrazio prozedura hutsik deklaratzea.

### Aurrekariak

Lehenengoa: Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko irailaren 15ean, hartutako erabakiaren bidez, KON_NE_G0005 kontratazio-espedienteari hasiera emon jako, Bermeoko Udalak eta Udalaren Kirol Patronatuak urtean zehar antolatzen dabezan ekitaldi ezberdinetarako, soinu eta argiztapen ekipoen alokairua eta laguntza teknikoaren zerbitzua emoteko.

Bigarrena: Prozedura honen publizitatea Bermeoko Udalaren kontratagile-profilean eta Euskadiko Sektore publikoko Kontratazino Plataforman 2020ko urriaren 15ean argitaratu zan.

Hirugarrena: 2020ko urriaren 6an, bost enpresei gonbidapena bidali jakez emailez eta postaz, eta emailez egun berean eta posta arruntaz, 2020ko urriaren 13an eta 14an jaso dabez lehiatzaileek.

Laugarrena: Proposamenak aurkezteko epea 2020ko urriaren 28an amaitu da.

Bosgarrena: Epea amaituta, ez da eskaintzarik aurkeztu.

### Argudioak

Lehenengoa: Eskaintzarik gabe, Bermeoko Udalak eta Udalaren Kirol Patronatuak urtean zehar antolatzen dituzten ekitaldi ezberdinetarako, soinu eta argiztapen ekipoen alokairua eta laguntza teknikoaren zerbitzua emoteko kontrazio prozedura hutsik deklaratu egin behar da.

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E40005428E00L1P8T0V0P0V6

**Sinadurea eta datea**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 12/11/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 12/11/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/11/2020 11:48:22

**EXPEDIENTE :: 2020KON_NE_G0005**

Datea: 09/07/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Bigarrena: Kontratua eta bere esleipena onartzeko ahalmenari jagokonez, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 2. Xedapen Gehigarrian jasotakoaren arabera, kontratua esleitzeko ahalmena alkateari jagoko. Baina 2019ko ekainaren 21eko 1.479 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazinoen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.

**Erabagia**

Tokiko Gobernu Batzarrak, bozketa nominatiboa egin ondoren, aho batez, honako hau ERABAGI dau:

LEHENENGOA: Bermeoko Udalak eta Udalaren Kirol Patronatuak urtean zehar antolatzen dituzten ekitaldi ezberdinetarako, soinu eta argiztapen ekipoen alokairua eta laguntza teknikoaren zerbitzua emoteko kontratazio prozedura hutsik deklaratzea, lizitatzailerik ez dagoelako.

BIGARRENA: Erabaki hau kontratatzailearen profilean argitaratzea, SPKLren 63.3. artikuluan xedatutakoarekin bat.

HIRUGARRENA: Behargintzari eta Udalaren kirol patronatuari erabagia jakinarazotea eta kontratugilearen profilean argitaratzea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespenaren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikuluaren arabera), Aritz Abaroa Cantuariense alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

Orri-oinean sinatzailea eta data